


EUSKAL KULTUR  
ERAKUNDEA  
—  
INSTITUT CULTUREL  
BASQUE



# Ekintzen bilduma 2024

 **ETHNO  
PÔLE**



Bilduma sarean ikus



Euskal kultur erakundeko diruztatzailleak (2024)





# Aurkibidea

|                                                                                                       |           |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO BARNE ANTOLAKETA 2024an .....</b>                                         | <b>6</b>  |
| <b>1. ARDATZA: Bildu eta ikerketu .....</b>                                                           | <b>8</b>  |
| <b>1.1. Ahozko memoria bildu eta landu .....</b>                                                      | <b>9</b>  |
| 1. ekintza - Ikus-entzunezko bilketa eta ahozko lekukotasunen tratamendu artxibistikoa .....          | 9         |
| 2. ekintza - Publikoak ahozko bilketari formatu .....                                                 | 9         |
| 3. ekintza - Ipar Euskal Herriko funts zaharren artxibatzea.....                                      | 9         |
| 4. ekintza - Euskal ahozko eta ikus-entzunezko oroimena lantzen duen kontsultagunearen kudeaketa..... | 9         |
| <b>1.2. Memoria eta sorkuntza gurutzatu .....</b>                                                     | <b>10</b> |
| 5. ekintza - Ikerketa programa: Herri kultura eta plaza ikusgarriak .....                             | 10        |
| 6. ekintza - «Museoa Urtu» egitasmoaren bururatzea.....                                               | 10        |
| 7. ekintza - Mintegien antolaketa .....                                                               | 10        |
| <b>1.3. Hizkuntza eta jendartea: elkarreragina aztertu .....</b>                                      | <b>12</b> |
| 8. ekintza - «Euskara, eremu publikotik intimora» ikerketa programa .....                             | 12        |
| 9. ekintza - Mintzaldien antolaketa .....                                                             | 12        |
| <b>1.4. Kultura eskubideak ikertu .....</b>                                                           | <b>13</b> |
| 10. ekintza - Tesia baten egiteko ikerketak .....                                                     | 13        |
| 11. ekintza - Ekintza zientifikoaren antolaketa eta komunikazioa .....                                | 13        |
| 12. ekintza - Frantses eta europar mailako ekitaldietan parte hartu.....                              | 13        |
| <b>DIRU BILANA .....</b>                                                                              | <b>14</b> |



## **2. ARDATZA: Transmittitu eta komunikatu ..... 15**

### **2.1. Euskal kulturaren transmisiorako estrategia bat asmatu ..... 16**

- 13. ekintza - «Euskal kultura bizi» euskal kulturaren sentsibilizazio eta transmisio ibilbideen sortzea ..... 16
- 14. ekintza - Euskal kultura digitala eta interaktiboa zabaltzeko tresnen diseinua ..... 16
- 15. ekintza - Euskal kulturaren transmisioari eta euskararekiko loturari buruzko gogoeta instituzionaletan parte hartzea ..... 16

### **2.2. Transmisio dispositiboak animatu ..... 17**

- 16. ekintza - Liburugintzako profesionalei zuzendu egunen antolaketa ..... 17
- 17. ekintza - Deskubritze tailerren antolaketa presondegi munduan ..... 18
- 18. ekintza - «Zineskola» dispositiboaren koordinazioa ..... 18
- 19. ekintza - «Collège au cinéma» dispositiboan parte hartzea ..... 18
- 20. ekintza - «Idazleak Ikastetxeetan» dispositiboaren egituraketa ..... 18
- 21. ekintza - «Musikariak Ikastetxeetan» dispositiboaren esperimentazioa ..... 18
- 22. ekintza - Booktrailer lehiaketa baten esperimentazioa ..... 19
- 23. ekintza - «Etnologo gazte» modulu pedagogikoaren esperimentazioaren luzatzea ..... 19

### **2.3. Eduki editorializatuak sortu, jendea euskal kulturari sentsibilizatzeko eta hezitzeko ..... 20**

- 24. ekintza - Eke.eus ataria, euskal kulturaren aldeko sentsibilizazioaren eta heziketaren baliabide-plataforma ..... 20
- 25. ekintza - Mintzoak.eus ataria, euskal ahozko memoriaren altxorren multimedia erakusleirhoa ..... 20
- 26. ekintza - «Eleketa» funtsaren balorapenak lurraldeka eta gaika ..... 21

### **2.4. Aktualitate artistiko eta kulturala baloratu ..... 23**

- 27. ekintza - SORMEN - Euskal sorkuntza kultural eta artistikoari buruzko sareko aldizkariaren argitaratzea ..... 23
- 28. ekintza - Euskal kultur eta arte aktualitatearen sareko agenda baten zabaltzea ..... 23
- 29. ekintza - Artisten eta kultur eragileen sareko erreperorioaren optimizazioa ..... 24
- 30. ekintza - Komunikazioaren garapena sare sozialetan eta hedapen zerrendetan ..... 24

## **DIRU BILANA ..... 25**

## **3. ARDATZA: Egituratu eta lagundu ..... 27**

### **3.1. Euskal kulturaren ekosistema egituratu ..... 28**

- 31. ekintza - ELKARTUZ desmartxa kolektiboaren animazioaren segitzea ..... 28
- 32. ekintza - Sail artistikoen egituraketa instituzionalaren aldeko elkarlanaren segitzea ..... 28
- 33. ekintza - Elkartekideen jarraitzeko programa baten plantan ezartzea ..... 28
- 34. ekintza - Artisten profesionalizazioa laguntzeko ibilbide baten asmatzea ..... 29

### **3.2. Elkartekideen proiektuak sostengatu ..... 30**

- 35. ekintza - Urteko egitasmo deialdiaren birmoldaketaren segitzea ..... 30
- 36. ekintza - SORTU dispositiboaren bidez, sorkuntza amaturra laguntzea ..... 30
- 37. ekintza - PASA dispositiboaren bidez, herri-transmisio proiektuak laguntzea ..... 30
- 38. ekintza - HEDA dispositiboaren bidez, lurraldeko ekitaldiak laguntzea ..... 30
- 39. ekintza - MUGI dispositiboaren bidez, mugikortasuna laguntzea ..... 31

|                                                                                                     |           |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>3.3. Artisten sorkuntza eta hedapena bultzatu.....</b>                                           | <b>32</b> |
| 40. ekintza - Literatura sorkuntza sostengatzea, egonaldi bikoitz baten antolaketaren bitartez..... | 32        |
| 41. ekintza - Musika sorkuntza sostengatzea, egonaldi bikoitz baten antolaketaren bitartez.....     | 32        |
| 42. ekintza - «Ibilki» dispositiboaren birmoldatzea .....                                           | 33        |
| 43. ekintza - Proposamen artistikoak zerrendatuko dituen barne datubase bat elikatzea .....         | 33        |
| 44. ekintza - 2023ko EKE-ELKAR literatura bekaren liburu irabazlearen sustapena .....               | 33        |
| 45. ekintza - Praktikaren eta sorkuntzaren inguruko hitzordu baten ko-antolaketa.....               | 33        |
| 46. ekintza - Euskal zinemaren sustapenari laguntza .....                                           | 33        |
| 47. ekintza - Hego Euskal Herrirako mugikortasuna sostengatu, partaidetza desberdinei esker .....   | 34        |
| <b>DIRU BILANA .....</b>                                                                            | <b>35</b> |
| <b>ELKARTEKIDEEN EGITASMOAK 2024.....</b>                                                           | <b>36</b> |
| <b>ERANSKINAK .....</b>                                                                             | <b>44</b> |
| <b>2024ko elkartekideen zerrenda .....</b>                                                          | <b>44</b> |
| <b>2024ko diru bilana.....</b>                                                                      | <b>48</b> |
| <b>2024ko emaitza kontuaren bilana .....</b>                                                        | <b>50</b> |



# Euskal kultur erakundeko barne antolaketa 2024an

## BILTZAR NAGUSIA

222 elkartekidek osatzen dute eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

## BULEGOA

**Lehendakaria** Katixa DOLHARÉ-ÇALDUMBIDE anderea

**Idazkaria** Juhane DASCON jauna

**Diruzaina** Peio SOULÉ jauna

## ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

### INSTITUZIOEN TALDEA

#### **Estatuaren ordezkariak**

Julien CHARLES jauna, (Jean-Marc GIRIER jaunak ordezkatur)

Pirinio Atlantikoetako prefeta

Fabrice ROSAY jauna,

Baionako suprefeta

Maylis DESCAZEAUX anderea,

DRAC-eko zuzendaria

#### **Akitania Berria Eskualdearen ordezkariak**

Ande SAINTE-MARIE jauna,

eskualdeko kontseilaria

Frédérique ESPAGNAC anderea,

eskualdeko kontseilaria

**Ordezkoak:**

Émilie DUTOYA anderea,

eskualdeko kontseilaria

Jean-Luc ARMAND jauna,

eskualdeko kontseilaria

#### **Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren ordezkariak**

Maider BEHOTEGUY anderea,

departamenduko kontseilaria

Max BRISSON jauna,

departamenduko kontseilaria

#### **Euskal Hirigune Elkargoaren ordezkariak**

Antton CURUTCHARRY jauna,

hizkuntza politika, kultura eta erkidegoko kultura

ekipamenduetarako lehendakariordea

Joseba ERREMUNDEGUY jauna,

mugaz gaineko, Europako zein nazioarteko

lankidetzetarako kontseilari ordezkaria

#### **Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria**

Aitziber ATORRASAGASTI anderea,

kultura zuzendaria

#### **Nafarroako Gobernuaren ordezkaria**

Mikel ARREGI jauna,

hizkuntza politikaren zuzendaria

### KULTURA ERAGILEEN TALDEA

#### **Euskal kultura eragileen ordezkariak**

Katixa DOLHARÉ-ÇALDUMBIDE, lehendakaria

Juhane DASCON jauna, idazkaria

Peio SOULÉ jauna, diruzaina

Agnès AGUER anderea

Patxi AMULET jauna

Pierre LATASA-GOYA jauna

Marie BIDART anderea

Maritxu GOYHENETCHE, anderea

Marie-Andrée OURET anderea

Hélène CHARRITON anderea

#### **KONTUETARAKO KOMISARIOA**

Pierre ARANGOITS jauna

Filipe LESGOURGUES jauna

# Lantaldea

## | ZUZENDARITZA & ADMINISTRAZIOA

### **Zuzendaria**

Johañe ETCHEBEST jauna

### **Administrazioa, konduak eta giza-baliabideak**

Elixabet MORTALENA anderea

## | KULTURA EGITASMOAK ETA BITARTEKARITZA SAILA

### **Sailaren koordinatzailea**

Marion LASTIRI anderea

### **Ikusgarrigintza, zinema eta mugaz gaineko proiektuen arduraduna**

Frank SUAREZ jauna

### **Kultura bitartekaritzaren koordinatzailea**

Maia ETCHANDY anderea (urrira arte)

## | TRANSMISIO & KOMUNIKAZIO SAILA

### **Sailaren & egitasmoen koordinatzailea**

Jakes LARRE jauna

### **Internet egitasmoendako itzultzailea & integratzailea**

Fred BERRUET jauna

### **Komunikazio arduraduna**

Lorentxa SARAGUETA anderea

### **Transmisio arduraduna**

Maritxu ETCHETO anderea

## ONDAREA & EUSKAL ETNOPOLOA SAILA

### **Etnologoa eta Etnopoloaren koordinatzailea**

Terexa LEKUMBERRI anderea

### **Ondarearen balorapenaren arduraduna**

Mathias OLASO jauna

### **Etnopoloaren misio karguduna**

Alaia CACHENAUT anderea

### **Mediazioa-Aprendizgoa**

Jenofa ERDOZAINZI-ETXART anderea (ekainera arte)

# 1. Bildu eta ikertu

---

## 1.1. Memoria bildu eta landu

- 1.ekintza - Ikus-entzunezko bilketa eta ahozko lekukotasunen tratamendu artxibistikoa
- 2.ekintza - Publikoak ahozko bilketari formatu
- 3.ekintza - Ipar Euskal Herriko funts zaharren artxibatzea
- 4.ekintza - Euskal ahozko eta ikus-entzunezko oroimena lantzen duen kontsultagunearen kudeaketa

## 1.2. Memoria eta sorkuntza gurutzatu

- 5.ekintza - Ikerketa programa: Herri kultura eta plaza ikusgarriak
- 6.ekintza - «Museoa Urtu» egitasmoaren bururatzea
- 7.ekintza - Mintegien antolaketa

## 1.3. Hizkuntza eta jendartea: elkarreragina aztertu

- 8.ekintza - «Euskara, eremu publikotik intimora» ikerketa programa
- 9.ekintza - Mintzaldien antolaketa

## 1.4. Kultura eskubideak ikertu

- 10.ekintza - Tesia baten egiteko ikerketak
- 11.ekintza - Ekintza zientifikoen antolaketa eta komunikazioa
- 12.ekintza - Frantses eta europear mailako ekitaldietan parte hartu

## DIRU BILANA



# 1.1 Ahozko memoria bildu eta landu

## 1. EKINTZA

### Ikus-entzunezko bilketa eta ahozko lekukotasunen tratamendu artxibistikoa

Eleketa programaren jarraitzea hamabortz elkarrizketa filmatuz, horien artean hamahiru Lapurdin bilduak izan direlarik: zazpi Errobiko ibarrean, hiru hego Lapurdiko kostaldean, bi Xarnegu-n eta bat Baionan ; berteze bi elkarrizketak Behe Nafarroan eginak izan dira: Izpuran eta Lasan.

Aurtengo gai nagusia «Lapurdiko ihauteriak» izan da. Bertzaldetik, Luhusoko harri xuri harrobiak aipatuak izan dira, edo lekukoek beren herriek ukan aldaketak jorratu dituzte.

Partaideak: Pirinio-Atlantikoetako departamendua (proiektuaren manatzailea), Euskal kultur erakundea (bilketaren egilea).

## 2. EKINTZA

### Publikoak ahozko bilketari formatu

2023an Oztibarre aldean eramana izan zen bilketa parte hartzailearen ondorioz (8 herritan barna, 11 lekukotasun berri bilduak izan ziren), Euskal kultur erakundeak, Kanalduderekin eta oztibartar talde batekin, dokumental bat sortu du, «Oztibartarrak lekuko» izeneko.

Oren bat irauten duen dokumental hau bi aldiz erakutsia izan da Oztibarre Egunean, Donaixti-Ibarren, 2024ko agorrilaren 17an.

Partaideak: Oztibarreko Eguna izeneko elkarteak, Donaixti-Ibarreko Herriko Etxea, Aldudarrak Bideo eta oztibartar batzuk.

## 3. EKINTZA

### Ipar Euskal Herriko funts zaharren artxibatzea

«Mattin Larzabal» fondoko artxibo-soinudun digitalizatuen tratamendua.

Helburua: Artxibo-soinudun horien ezagutaraztea, haien eskuragarritasuna erraztuz.

Partaideak: Pirinio-Atlantikoetako departamendua (Baionako artxibategia).

## 4. EKINTZA

### Euskal ahozko eta ikus-entzunezko oroimena lantzen duen kontsultagunearen kudeaketa

Hitzordu baten bidez, Uztaritzeko kontsultagunean (EKE-ren egoitzan), artxibo-digitalizatuen kopiak publikoari eskaini. Urtean zehar, hamabortz bat informazio-eskaera eskuratu ditugu. Bestalde, Eleketako funtsak erabiltzeko eskaerak kudeatu ditugu ere: eskaerak Baionako artxibategiari birbidaliak izan zaizkio, eta hauek onartu ondoan, EKEk fitxategien kopiak igorri dizkie erabiltzaileei.

Helburua: Ikus-entzunezko artxiboak eskuragarri izan daitezen.

Partaideak: EKE-k bideratzen duen proiektua, artxibo-kontsultagarrien jabeen laguntzarekin.

# 1.2 Memoria eta sorkuntza gurutzatu

## 5. EKINTZA

### Ikerketa programa: Herri kultura eta plaza ikusgarriak

2023an abiatu programa honen xedea, herri antzerki satirikoaren forma desberdinen azterketa eta analisiak egitea da.

2024ko maiatzaren 30 eta 31n, euskal etnopoloren zazpigarren kolokioa antolatua izan da gaia jorratzen dutenekin (ikus 7. ekintza).

Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitatea ikerketa bat eramaiten ari da Iruñea, Añorga eta Hazparneko libertimenduetaz. Izenburua: «Gazte ahotsak. Gazte-kultura eta euskara: gazte-estiloak eta hizkuntza-ideologiak».

2024an landa lana eraman ondoan, 2025ean datuen azterketan sartuko da. Euskal etnopolorekin, emaitzen aurkezpena prestatua izanen da 2026ko.

Partaidetza dinamika: Emile Durkheim zentroa, Euskal Herriko Unibertsitatea eta beste.

## 6. EKINTZA

### «Museoa Urtu» egitasmoaren bururatzea

Egitasmoak urte bateko gibelapena hartu du, 2025ean borobiltzeko.

Nader Koochaki artistak 54 zintzarri prototipoen fabrikazioa burutu du CEIT (atomizazio fasea), UNDO (3D diseinua) eta MADIT (3D ekoizpena) enpresekin. Latoizko bainuak baita ere lepoko eta mihien ekoizpenen faseak bururatzekotan dira, Iturgoingo Jose Antonio Lazcano zintzarrigilearekin.

«Museoa Urtu» egitasmoari lotua den Nader Koochakiren Soineko Paisaia erakusketa (artaldean zintzarri hotsen artxibo soinuduna), Mauleko

Ondarearen Etxean estreinatua izan da irailaren 11n eta erakutsia izan da 2024ko agorrilaren 5etik 2025eko martxoaren 3a arte. Partaidetza bat lotua izan da Xiberoko Botza irratiarekin, erakusketarekin zerikusia duten bederatzi podcast hedatzeko.

«Soineko Paisaia» erakusketa, Baionako Euskal Museoan erakutsia izan da urtarrilaren 20tik maiatzaren 1.era arte.

Partaidetza dinamika: Nader Koochaki-ren proiektua, Baionako Euskal Museoak eta EKEk lagundua, Xiberoko Sindikatu Batzordearekin, Gordailuarekin (Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa), eta Mauleko Herriko Etxearekin partaidetzan.

## 7. EKINTZA

### Mintegien antolaketa

#### 2024ko maiatzaren 30 eta 31ko kolokioa

«Herri kultura eta plaza ikusgarriak Euskal Herrian. Zertan ote gira?»

Pastoralen, maskaraden, ihauterien, libertimenduen edo kabalkaden iraupenak, aldaketak eta arra-deskubritzeak begi berri batetik aztertuak dira azken urteetan. Ikerleek alde batetik, gaurko eragileek bestetik, Ipar Euskal Herriko herri kultura zertan den aurkeztu digute.

100 pertsona

Tokia: Baiona - Ipar Euskal Herriko goi mailako arte eskola.

Partaidetza dinamika: Ipar Euskal Herriko goi mailako arte eskola, Bordeaux Montaigne unibertsitatea, Xabier Itçaina (Emile Durkheim Zentroa), Passages laborategia.

**2024ko azaroaren 28ko mintzaldia**

«Soinu-tresnak euskal herri musikan», Juan Mari Beltran-en eskutik.

Mintzaldi musikatua. Ondoko galderak jorratuak izan dira: Zer da, eta nola eratu da euskal kultura, herri-musika eta identitatearekin hain lotuta dagoen euskal herri soinu-tresnaren bilduma hori?

50 pertsona

Tokia: Baionako Euskal Museoa

Partaideak: Iparraldeko kontserbatorioa («Arteen artean» programa kari), Euskal Museoa.

# 1.3 Hizkuntza eta jendarteak: elkarrekin aztertzea

## 8. EKINTZA

### «Euskara, eremu publikotik intimora» ikerketa programa

2024ko martxoaren 5ean, «Hizkuntzarekiko harremanaren balioa. Euskara, okzitaniera eta haratago» ikerketa eguna antolatua izan da. Gaia hiru eremutik abiatuz aztertua izan da: norberaren sentipen intimoa, hizkuntzaren ingurune sozial, ekonomiko eta ekologikoa, eta azkenik, eskolaren eta instituzioen esparrua.

60 pertsona

Tokia: Bordeaux Montaigne unibertsitatea, Pessac

Partaidetza dinamika: FrancophoNéA, Bordeaux Montaigne Unibertsitatea, Calandreta de la Dauna.

1880-1920 garaian, Errepublika laikoak, Nazioa eraikitzen bukatzeko, eliza katolikoari eta laikusaren errefusari nola aurre egin dion, baita eskualdeetako kultura eta hizkuntzei ere. Hara zer gai aipatuak izan diren.

50 pertsona

Tokia: Baiona - Euskal Museoa

Partaidetza dinamika: Baionako Euskal Museoa, Haritschelhar katedra.

Jennifer Green-en mintzaldia 2025era gibelatua izan da.

## 9. EKINTZA

### Mintzaldien antolaketa

#### 2024ko urtarrilaren 23a

«Emazteen fabore» edo euskal literatura feminista gaur, Marijo Olaziregi-ren eskutik.

Gaur egungo euskal emazte idazleen zenbait lanetatik abiatuz, beren sorkuntzaren bitartez idazleek salatzen dituzten mota guzietako arrakalak (generozkoak, politikoak, kulturalak), aipatuak izan dira.

50 pertsona

Tokia: Baiona - Euskal Museoa

Partaidetza dinamika: Baionako Euskal Museoa, Bordeaux Montaigne unibertsitatea.

#### 2024ko maiatzaren 23a

«Errepublika laikoa, eliza, hizkuntzak», Patrick Cabanel-en eskutik.

# 1.4 Kultura eskubideak ikertu

## 10. EKINTZA

### Tesia baten egiteko ikerketak

Bi elkarrizketa eginak izan dira «Eleketa» programaren kariatara, eta kultura eskubideei buruz erakundeek idatzi txostenak irakurri eta aztertuak izan dira. Pirinio-Atlantikoetako departamenduak eraman desmartxa parte hartzailearen emaitzen ondotik, egin ikerketaren datuen lehen azterketa bat egiten hasi gara.

Partaidetza dinamika: Etnopoloa, Departamendua.

eskubideak» ondorio txostena idatzi eta aurkeztua izan zen Eusko Ikaskuntzaren XIX. kongresua kari.

2024an ere, kultura politikei, herri kultura eta kultura eskubideei buruzko hainbat kolokio eta mintegitan parte hartu dugu, bai Euskal Herrian, bai urrunago ere. Tokia: Gasteiz

Partaidetza dinamika: Eusko Ikaskuntza.

## 11. EKINTZA

### Pertsonen kanpo eta barne gaitasunak kultura bizian parte hartzeko duten eskubidean: baldintzen eta baliabide erabilgarrien azterketa

#### 2024ko ekainaren 27a

Mahain ingurua, «Kultura eskubideak eta eragiteko ahala» gaiaren inguruan.

Herritar, elkarte, erakunde baita ikertzaile batzuek ekarritako lekukotasun batzuen bidez, egoera konketuak aipatuak izan dira eta kultura eskubideen nozioa argitua izan da.

Mahain inguruaren parte hartzaileak: Ambre Tissot, Eneko Gorri, Michaël Gavazzi (moderatzailea: Alaia Cachenaute)

15 pertsona

Tokia: Baionako mediateka

Partaidetza dinamika: Baionako mediateka.

## 12. EKINTZA

### Frantses eta europear mailako ekitaldietan parte hartu

Eusko Ikaskuntzaren baitan eramana izan den kultura eskubideei buruzko gogoeta taldean parte hartu ondotik, «Parte-hartze kulturalerako politikak. Kultur



# Diru bilana

## 1. ardatza: BILDU & IKERTU

|                                                    |                                    | Aurrekondua                                                                         |       | Bilana    |           |
|----------------------------------------------------|------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|-------|-----------|-----------|
|                                                    |                                    | Koordinazioa eta perspektibak                                                       | 26778 | 28885     |           |
|                                                    |                                    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                     | 26778 | 28885     |           |
|                                                    |                                    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                  | 0     | 0         |           |
| 1.1. Ahozko memoria bildu eta landu                | 1                                  | Ikus-entzunezko bilketa eta ahozko lekukotasunen tratamendu artxibistikoa           | 23946 | 24499     |           |
|                                                    |                                    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                     | 19446 | 20416     |           |
|                                                    |                                    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                  | 4500  | 4083      |           |
|                                                    | 2                                  | Publikoak ahozko bilketari formatu                                                  | 2359  | 0         |           |
|                                                    |                                    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                     | 359   | 0         |           |
|                                                    |                                    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                  | 2000  | 0         |           |
|                                                    | 3                                  | Ipar Euskal Herriko funts zaharren artxibatzea                                      | 27912 | 28976     |           |
|                                                    |                                    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                     | 27912 | 27402     |           |
|                                                    |                                    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                  | 0     | 1574      |           |
|                                                    | 4                                  | Euskal ahozko eta ikus-entzunezko oroimena lantzen duen kontsultagunearen kudeaketa | 1220  | 1925      |           |
|                                                    |                                    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                     | 1220  | 1925      |           |
|                                                    |                                    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                  | 0     | 0         |           |
| 1.2. Memoria eta sorkuntza gurutzatu               | 5                                  | Ikerketa programa: Herri kultura eta plaza ikusgarriak                              | 11919 | 9938      |           |
|                                                    |                                    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                     | 9919  | 8788      |           |
|                                                    |                                    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                  | 2000  | 1150      |           |
|                                                    | 6                                  | Museoa Urtu egitasmoaren bururatzea                                                 | 6425  | 3898      |           |
|                                                    |                                    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                     | 3425  | 3448      |           |
|                                                    |                                    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                  | 3000  | 450       |           |
|                                                    | 7                                  | Mintegien antolaketa                                                                | 26224 | 26391     |           |
|                                                    |                                    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                     | 19554 | 20771     |           |
|                                                    |                                    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                  | 6670  | 5620      |           |
| 1.3. Hizkuntza eta jendartea: elkarreragia aztertu | 8                                  | “Euskara, eremu publikotik intimora” ikerketa programa                              | 9172  | 10032     |           |
|                                                    |                                    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                     | 7172  | 8642      |           |
|                                                    |                                    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                  | 2000  | 1390      |           |
|                                                    | 9                                  | Mintzaldien antolaketa                                                              | 8849  | 7696      |           |
|                                                    |                                    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                     | 7879  | 6246      |           |
|                                                    | Proiektuari doazkion beste gastuak | 970                                                                                 | 1450  |           |           |
| 1.4. Kultura eskubideak ikertu                     | 10                                 | Tesia baten egiteko ikerketak                                                       | 6440  | 5376      |           |
|                                                    |                                    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                     | 6440  | 5376      |           |
|                                                    |                                    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                  | 0     | 0         |           |
|                                                    | 11                                 | Ekintza zientifikoaren antolaketa eta komunikazioa                                  | 8849  | 8076      |           |
|                                                    |                                    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                     | 7879  | 7356      |           |
|                                                    |                                    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                  | 970   | 720       |           |
|                                                    | 12                                 | Frantses eta europar mailako ekitaldietan parte hartu                               | 6293  | 6265      |           |
|                                                    |                                    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                     | 4293  | 4266      |           |
|                                                    |                                    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                  | 2000  | 1999      |           |
|                                                    |                                    | OROTARA 1. ARDATZA :                                                                |       | 166 385 € | 161 958 € |
|                                                    |                                    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                     |       | 142 275 € | 143 521 € |
|                                                    |                                    | Proiektuei doazkien beste gastuak :                                                 |       | 24 110 €  | 18 437 €  |

## 2. Transmititu eta komunikatu

---

### 2.1. Euskal kulturaren transmisiorako estrategia bat asmatu

- 13.ekintza - «Euskal kultura bizi» euskal kulturaren sentsibilizazio eta transmisio ibilbideen sortzea
- 14.ekintza - Euskal kultura digitala eta interaktiboa zabaltzeko tresnen diseinua
- 15.ekintza - Euskal kulturaren transmisioari eta euskararekiko loturari buruzko gogoeta instituzionaletan parte hartzea

### 2.2. Transmisio dispositiboak animatu

- 16.ekintza - Liburugintzako profesionalei zuzendu egunen antolaketa
- 17.ekintza - Deskubritze tailerren antolaketa presondegi munduan
- 18.ekintza - *Zineskola* dispositiboaren koordinazioa
- 19.ekintza - *Collège au cinéma* dispositiboan parte hartzea
- 20.ekintza - *Idazleak Ikastetxeetan* dispositiboaren egituraketa
- 21.ekintza - *Musikariak Ikastetxeetan* dispositiboaren esperimentazioa
- 22.ekintza - *Booktrailer* lehiaketa baten esperimentazioa
- 23.ekintza - *Etnologo* gazte modulu pedagogikoaren esperimentazioaren luzatzea

### 2.3. Eduki editorializatuak sortu, jendea euskal kulturari sentsibilizatzeko eta hezitzeko

- 24.ekintza - Eke.eus ataria, euskal kulturaren aldeko sentsibilizazioaren eta heziketaren baliabide-plataforma
- 25.ekintza - Mintzoak.eus ataria, euskal ahozko memoriaren altxorren multimedia erakusleihoa
- 26.ekintza - «Eleketa» funtsaren balorapenak lurraldeka eta gaika

### DIRU BILANA

# 2.1 Euskal kulturaren transmisiorako estrategia bat asmatu

## 13. EKINTZA

### «Euskal kultura bizi» euskal kulturaren sentsibilizazio eta transmisio ibilbideen sortzea

Bi sentsibilizazio ibilbideren esperimentazioa: bata euskal musikari buruz bi kolegioko klasetan (Marracq eta A.Camus), txoriaren sinbolikaren inguruan, bestea, Ezpeletako ama eskolako gela batean, zinema tailer bati buruz, Zineskola dispositiboaren kariatara «Yuku» filma ikusi ondotik.

Transmisio arduraduna urte hondarean etorri delako (azaroan), 2024an ez dira proiektu gehiago garatu ahal izan.

Dinamika parte hartzailea: Proiektua EKE-k koordinatzen du lurralde elkargoarekin, EEPrekin eta Hezkuntza Nazionalarekin.

eskemari buruzko gogoetetan parte hartzea, bai eta Iparraldeko Kontserbatorioak musika eta dantza tradizionalari buruz antolatu dituen lantaldeetan ere. EEPrekin, euskararen erabilerari eta euskararen eta kulturaren arteko harremanari buruzko eztabaidak eta egituren arteko osagarritasunari buruzko gogoeta. Euskal dantza kurtsoaren egituraketa Iparraldeko Kontserbatorioko musika eta dantza tradizionalen sailarekin.

2025ean «Pass culture» egiaztapena lortzeko lehen urratsak.

Dinamika parte hartzailea: lurralde elkargoen, EEPren eta Hezkuntza Nazionalaren euskal kulturaren erreferentea den EKE.

## 14. EKINTZA

### Euskal kultura digitala eta interaktiboa zabaltzeko tresnen diseinua

Egin gabeko ekintza. Transmisio arduraduna berant hasi denez (azaroan), ez da dibulgazio tresnarik obratu ahal izan.

## 15. EKINTZA

### Euskal kulturaren transmisioari eta euskararekiko loturari buruzko gogoeta instituzionaletan parte hartzea

Departamenduko hezkuntza eta praktika artistikoen

# 2.2 Transmisio dispositiboak animatu

## 16. EKINTZA

### Liburugintzako profesionalei zuzendu egunen antolaketa

Bi egun eta erdiren antolaketa BILKETA sareko profesionalentzat (liburuzainak, dokumentalistak), eta zabalago, liburuaren eta irakurketaren alorrari interesatzen zaion edonorentzat (irakasleak, ikasleak, lehen haurtzaroko profesionalak...):

«Ipar Euskal Herriko historia: argitalpenak, historialari nagusiak, ikerketa».

Sarako Idazleen Biltzarraren kariatara antolatua.

Data: apirilaren 2a

Tokia: Sarako Harpeak

Antolatzaileak: Euskal kultur erakundea, BILKETA Sarea, Sarako Biltzarra, Biblio64

Hizkuntza: Euskaraz, bat-bateko itzulpenarekin frantsesera

Parte hartzaileen kopurua: 43

#### Egitaraua:

- Performantzia «Gora euskal (H)errientsak» eleberri grafikoaren inguruan, Dom Campistron & Asisko Urmeneta-ren eskutik
  - «Ipar Euskal Herriko historia: argitalpenak» gaiaren inguruko mintzaldia, Elkar liburutegiko Peio d'Uhalt-en eskutik
  - «(Ipar) Euskal Herriko historialari nagusiak» gaiaren inguruko mintzaldia, Claude Martinez Historia irakaslearen eskutik
  - «Ipar Euskal Herriko historia idazten ahal ote da?» gaiaren inguruko mahai ingurua, Peio Etcheverry-Ainchart-ek animaturik.
- Parte hartzaileak: Xabier Itçaina (ikerlea Ikerketa Zientifikoko Zentro Nazionalen - CNRS eta Emile

Durkheim Bordeleko Sciences-Po ikerketa zentroan), Maite Urmeneta (Historia-Geografiako irakaslea), Bixente Irigarai (Baigorriko Mehaka interpretazio zentroko animatzailea), eta Philippe Etchegoyhen (Zuberoako historian berezituriko idazlea).

«Inplizitoa haur eta gazte literaturan: argiki adierazia ez dena asmatu eta ulertu».

«Ikusi Mikusi» azokaren kariatara antolatua.

Data: urriaren 11a

Tokia: Sarako Harpeak eta Kiroldedia

Antolatzaileak: Euskal kultur erakundea, BILKETA Sarea, Mari Gorri, Biblio64

Hizkuntza: Euskaraz, bat-bateko itzulpenarekin frantsesera

Parte hartzaileen kopurua: 41

#### Egitaraua:

- 2024 urteko haur & gazte literaturako berritasunak eta hautaketa berezia, Ana Imaz-en (Libreplume) & Elise Dilet-en (Ikas) eskutik
  - Artisten aurkezpenak: Zer programatu mediateketan edo ikastetxeetan haurrentzat literaturaren inguruan?
  - «Kontakizunen irakaspenak: mezu esplizitu eta inplizituak euskarazko haur eta gazte literaturan», Ainize Madariaga-k animaturik.
- Parte hartzaileak: Eztitxu Albistur (ikerlaria), Ainara Azpiazu Aduriz «Axi» (ilustratzailea), Mirentxu Ibargarai (Haria egitasmoa), Carmen Elvira (Pamiela-Kalandraka), eta Aintzane Usandizaga (idazlea).

**Helduentzako berrietasunak:**

Data: irailaren 19a (arratsaldez)  
 Tokia: Kanboko Biblio64-aren egoitzan  
 Antolatzaileak: Euskal kultur erakundea, BILKETA  
 Sarea, Biblio64  
 Parte hartzaileen kopurua: 9

Helduendako berrietasunak (literatura, musika...),  
 Baionako Elkar liburudendaren eskutik.

Partaidetza dinamika: EKE ko-antolatzaile,  
 BILKETA sarea, Biblio64, Sarako Biltzarra  
 eta Mari Gorri-rekin partaidetzan.

**17. EKINTZA****Deskubritze tailerren antolaketa presondegi munduan**

Dantza eta musika tailerren antolaketa Baionako presondegian.

**Egitaraua:**

Uztailaren 2a (arratsaldez): dantza tailerra Iparraldeko Dantzarien Biltzarra-rekin (IDB).  
 Parte hartzaileak: Ihintza Irungarai eta Elorri Francesena.

Uztailaren 3a (goizez): musika tailerra Bilaka-rekin.  
 Parte hartzaileak: Xabi Etxeberri eta Patxi Amulet.

Uztailaren 3a (arratsaldez): dantzaren eta musikaren inguruko tailer amankomuna IDB eta Bilaka-rekin.  
 Parte hartzaileak: Ihintza Irungarai eta Patxi Amulet.

Parte hartzaileen kopurua: 6 eta 10 preso artean tailer bakoitzean.

Partaidetza dinamika: EKE ko-antolatzaile, presondegietako gizarteratze zerbitzuarekin partaidetzan.

**18. EKINTZA****«Zineskola» dispositiboaren koordinazioa**

Ustiapen pedagogikoen aurkezpena irakasleei, 2024ko urtarrilean antolatu aitzin-proiektzioen kariatara.

Euskarazko bi animazio filmen proiektzioa, *Yuku eta Himalaiako lorea* eta *Ainbo*, lehen mailako ikasleentzat (83 ikastetxeko 4 283 ikasle), martxotik apirilera, lurraldeko hamaika zinema gelatan.

Hiru film berriren hautaketa 2024-2025 ikasturterako: *Grufaloo*, *Teresa eta Galtzagorri*, eta *Phantom boy*, eta aholkulari talde batek landu ustiapen pedagogikoaren

proposamena.

Zerbitzu hornitzailea dispositiboaren animaziorako: Zukugailua

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, Cinéma et Cultures, Cinévasion, zinema gela parte hartzaileak, IKAS euskal pedagogia zerbitzua, Hezkunde Nazionala eta Zineuskadi-rekin partaidetzan.

**19. EKINTZA****«Collège au cinéma» dispositiboan parte hartzea**

*Nora* eta *Bertsolari* filmen inguruan, bitartekaritza ekintzak plantan ezartzeko laguntza.

2024-2025 ikasturteko filmen hautaketa batzordean parte hartzea. Hautatutako filma: *Aupa Etxebeste!*  
 Ikasle eta irakasleei zuzendu euskarri pedagogikoen sortzeko laguntza.

Partaidetza dinamika: Cinévasion elkarrekin eraman dispositiboa, EKE aholkulari eta diru partaide.

**20. EKINTZA****«Idazleak Ikastetxeetan» dispositiboaren egituraketa**

Dispositiboaren esperimentazioaren segitzea, ikasleei idazle edo ilustratzaile euskaldun batekin trukatzeko parada emateko.

- Topaketa Yolanda Arrieta-rekin: bi saio Sara, Aloze eta Lekorneko ikastoletako 3., 4. eta 5. urteko ikasleekin.

- Topaketa Eider Eibar-ekin: bi saio Ziburuko ikastolako haur hezkuntzako sail handiko eta 1. urteko ikasleekin, eta Ziburuko eskola publikoko 1., 2. eta 3. urteko ikasleekin.

- Topaketa Amets Arzallus eta Ibrahima Balde-rekin: bi saio Kanboko Xalbador kolegioko 4.eko bi klaseekin.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, ikastetxeekin eta idazleekin partaidetzan.

**21. EKINTZA****«Musikariak Ikastetxeetan» dispositiboaren esperimentazioa**

21 topaketa antolatuak izan dira ikasle eta artista musikari euskaldunen artean, 17 kolegio eta lizeo ezberdinetan, obrak ezagutzeko eta artisten ibilbideei buruz gogoetak trukatzeko.

Topaketa horien ondotik, Pantxix Bidart musikariak bi kantu idazketa tailer eraman ditu, txoriaren gaiaren inguruan, Marracq eta Albert Camus ikastetxeetako 5. mailako bi klasetan.

Proiektuaren sekuentzia pedagogiko ezberdinak biltzen dituen orrialde numeriko bat sortua izan da.

Dinamika parte hartzailea: EKE-k eta Giltzaera elkarteak Dijitalidadea egiturarekin (Gotzon Barandiaran) eta ikastetxeekin elkarlanean eraman proiektua.

#### **22. EKINTZA**

### **| Booktrailer lehiaketa baten esperimentazioa**

Euskarazko booktrailerrak sortzea helburu duen dispositibo esperimental baten abiatzea (2023-2024 ikasturterako), Kanboko Xalbador, Baigorriko Jean Pujo, eta Hendaiaiko San Bixente kolegioetako 5.eko lau klasetan (90 bat ikasle).

Hiru kolegioen arteko topaketa apirilaren 30ean, booktrailerren proiektzioekin zinemagelan, euskarazko liburu bat erosteko 15€-ko bonu baten banaketa ikasleka, eta topaketa Amets Arzallus-ekin.

Partaidetza dinamika: ELKARTUZ Literatura tailerretatik sortu egitasmoa, EKE-k eta IKAS euskal pedagogia zerbitzuak elkarrekin eramana, kolegio pilotuetako irakasleekin eta Hezkunde Nazionalarekin partaidetzan.

#### **23. EKINTZA**

### **| «Etnologo» gazte modulu pedagogikoaren esperimentazioaren luzatzea**

Ekintza ez da burutu ahal izan ez baita kolegorik agertu ibilbide hortan parte hartzeko 2024-2025 ikasturtean.

Partaidetza dinamika: Pirinio Atlantikoetako Departamenduak (Artxibotegia) eraman egitasmoa Euskal kultur erakundearen partaidetzarekin.



## 2.3 Eduki editorializatuak sortu, jendea euskal kulturari sentsibilizatzeko eta hezitzeko

### 24. EKINTZA

#### Eke.eus ataria, euskal kulturaren aldeko sentsibilizazioaren eta heziketaren baliabide-plataforma

##### Hobekuntza funtzionalak eta grafikoak

2023an hasi genituen atariaren birmoldatze grafikoak bururatu ditugu.

Edukien eguneratzeko eta kontsultaren errazteko helburuarekin, aldaketa teknikoak ere plantan emanak izan dira (ediziorako interfazea eta interfaze publikoak bereizi dira).

##### Eguneraketak eta eduki sortzea

Gunearen atal ezberdinetan hainbat eguneraketa burutuak izan dira.

Bereziki aipatzekoa da «Euskal kantua eta musika» atala aberastu dela zenbait egileren ekarpenei esker:

Daniel Landart Errobi taldearen kantu idazlearen kronologia bat sarean emana izan da.

Iparraldeko Abesbatzen Elkarteko lehendakari-orde eta koru zuzendari den Frédéric Sorhaitzek gure atariko partitura funtsen bilduma aberastu du eta zuzenketa franko ekarri.

Euskal dantzaren gaiari dagokionez, Jean-Michel Guilcher (1914-2017) etnologoaren ikus-entzunezko funtsari buruzko artikuluen idazketa-lana hasi dugu. Ikerlari famatu horren familiak funts hori EKE-ri eskaini zion 2023an, ezagutaraz zezan.

Dibulgazio artikuluen horien sortze lana Maritzuli elkarteko Jon Iruretagoyena-ren esku utzi dugu, manaketa baten bidez.

Bere artikuluen elebidunak, deskribatzen dituzten bideoekin batera, 2025ean zehar jarriko ditugu gure atarian.

##### www.eke.eus atariaren 2024ko estatistikak

Oharra: GA4 tresnaren bidez bildu ondoko datuek tendentzia orokorrak ematen dituzte. Egiazko bisita kopuruekin aldeak izan daitezke, batez ere cookien politikaren eta datu pertsonalen kudeatzeko erabiltzen dugun tresnaren berezitasunak direla-eta.

Sesioak (bisitak): 344.789 (+ %1,35 / 2023)

Erabiltzaile aktiboak: 255.355 (+ %8,38 / 2023)

Engaiamendu tasa: %47

Partaideak: EKE-k eraman egitasmoa, CodeSyntax enpresarekin elkarlanean.

### 25. EKINTZA

#### Mintzoak.eus ataria, euskal ahozko memoriaren altxorren multimedia erakusleihoa

Azpitulazio lana egin ondoan, «Eleketa, Iholdi-Oz-tibarreko ahozko oroimenak» erakusketan aurkeztu bideo-pasarte guziak pixkanaka-pixkanaka sarean eman ditugu, 2025eko urte hastapenean argitaratuak izateko gisan, denen esku kontsultagarri.

40 erreportaje tematiko, 122 bideo-kapsula eta 400 elkarrizketa pasarte gehiago dira orain ikusgai Mintzoak.eus atarian, hau da, 18 oren inguru lekukotasun, azpitoluz horniturik.

«Oztibartarrak mintzo» dokumentala, bai eta Irisarriko Ospitalea zentroan antolatu bi gaualdietan aurkeztu genituen erreportajeak sarean emanak izan dira:

- «Maldan bizi: artzaintza & mendi laborantzari buruzko lekukotasunak»
- «Toberak Irisarrin (1928an eta 1937an)»

Horrez gain, Gure Irratian hedatu 10 «Eleketa» irrati-kronika txertatu ditugu atarian (Lapurdiko biztanleen lekukotasunak).

Azkenik, 6 lekukotasun sorta (Ikusgai edo entzungai diren pasarte/muntaketekin osatu ditugun lekukotasun bildumak, betiere gai baten inguruan bilduak eta azpitoluz hornituak) sortu ditugu gai hauen inguruan:

- Laborantza Ipar Euskal Herrian (1930-2020)
- Artzaingoa
- Zuberoako pastoralak
- Zuberoako maskaradak
- Oihanaren ustiapena
- Merkatuak

#### www.mintzoak.eus atariaren 2024ko estatistikak

Oharra: GA4 tresnaren bidez bildu ondoko datuek tendentzia orokorrak ematen dituzte. Egiatzko bisita kopuruekin aldeak izan daitezke, batez ere cookieen politikaren kudeatzeko erabiltzen dugun tresnaren berezitasunak direla-eta.

Sesioak (bisitak): 5.707 (+ %3,16 / 2023)  
Erabiltzaileak (bisitariak): 2.907 (+ %0,17 / 2023)  
Ikusitako orrialde kopurua: 32.387 (- %9,86 / 2023)

Partaideak: EKE-k eraman egitasmoa, CodeSyntax enpresarekin elkarlanean. «Eleketa» funtsaren jabe den Pirinio Atlantikoetako Departamenduko artxibotegiarekin partaidetzan.

multimedia eta interaktibo honetan, Iholdi-Oztibarreko 55 lekukok beren bizipenen eta oroimenen berri eman digute, bideo-pasarteak beren jatorrizko transkripzioarekin eta itzulpenarekin (euskaraz edo frantsesez) aurkeztuak izan direlarik.

Erakusketaren gai nagusiak:

- Irisarri - Suhuskune: errituak eta dantzak, herriko gorabeherak, 1960-1980 urteak
- Irisarri - Suhuskune: etxaldean ibilmoldea, plazako bizia, eskola eta eliza
- Iholdi, Armendaritze eta Landibarre herrietako bizia
- Oztibarreko ekonomia tradizionala (laborantza-artzaintza, oihanaren ustiapena, beste ofizioak...)
- Oztibarreko herrietako bizia (etxeko giroa, haurtzaroa, gaztetasuna, elizaren eragina, oroitzapenak...)
- Oztibarre 1960tik hona (kanbiamenduak eta borroakak)

Orotara 19 oren lekukotasun ikusgai izan dira: euskarazko eta frantsesezko azpitoluz hornituriko 122 bideo-pasarte eta 40 erreportaje tematiko.

Bestalde, horien denen osagarri, Larzabaleko Manex Erdozaintzi-Etxart Kolegioko 22 ikaslek «Etnologo gazte» egitasmoaren baitan sortu erreportaje ttipiak (hiru hilabetez, beren inguruko ezagun batzuk elkarrizketatu eta filmatu dituzte) erakutsiak izan dira xoko batean.

Erakusketa ondoko lekuetan aurkeztua izan da:

- Larzabalen - Espelletenia ostatu-kulturgunean - 2024ko agorrilaren 19tik urriaren 18ra. «Eleketa» multimedia kiosko (borna) bat egon da bertan 2025eko urtarrilaren 6a arte.
- Irisarrin - Ospitalea zentroa - 2024ko urriaren 24tik azaroaren 29ra.

Larzabalen, tokian-tokiko ikastetxeetako ikasleekin erakusketaren bisitak burutu dira karia hortarako landu euskarri pedagogikoak erabiliz.

#### 26. EKINTZA

### «Eleketa» funtsaren balorapenak lurraldeka eta gaika

2024an, «Eleketa, Iholdi-Oztibarreko ahozko oroimenak» erakusketa ekoiztua izan da. Instalazio

**Xiberoako pastoralaren ahozko oroimenen multimedia kiosko bat**

«Ligetx koblakaria(k)» pastoralara prestatzen ari zirela, mustrakakedo errepikake giteko erabiltzen zuten lekuan, Gamere-Zihigako biztanleek gure «Eleketa, Xiberoako ahozko oroimenak» erakusketaren multimedia dorrea erabili ahal izan dute, 2024ko martxotik ekainera. Honen bidez, aktore eta parte-hartzaile desberdinek pastoralari eta maskaradari buruzko lekukotasun eta artxibo arraroak ikusi ahal izan dituzte.

**«Oztibartarrak lekuko» dokumentala**

Euskal kultur erakundeak «Oztibartarrak lekuko» dokumentala ekoiztu du, Kanaldude herri telebistarekin partaidetzan, Oztibarreko lurraldean gaindi «Eleketa» programaren baitan bildu lekukotasunekin.

Dokumental hau 2024ko agorrilaren 17an aurkeztua izan da Donaixti-Ibarren, Oztibarre egunaren karietara. Gero «Eleketa, Oztibarreko ahozko oroimenak» erakusketan erakutsia izan da urri hondar arte Larzabalen, agorrilaren 29an, lekuko frankorekin, estreinaldi-gaualdi berezi batean aitzinean emana izan delarik.

Geroztik Mintzoak.eus plataforman zintzilikatua izan da.

**«Eleketa» gaualdiak Irisarriko Ospitalea ondare hezkuntzarako zentroan**

Terexa Lekumberri EKE-ko etnologoak bi gaualdiren karietara aurkeztu erreportaje tematikoen prestaketa (muntaketak eta azpigituluen sortzea):

- 2024ko urriaren 11n, Zigor argazkilariaren «Malda bizi» erakusketa kari - Gaualdiaren gaia: malda eta laborantza-artzaingoa.
- 2024ko azaroaren 15ean, «Eleketa, Iholdi-Oztibarreko ahozko oroimenak» erakusketa kari - Gaualdiaren gaia: Toberak Irisarrin (1928an eta 1937an).

**«Eleketa» bornak «Itsasotik» egunetan Donibane Lohizunen**

Apirilaren 6an eta 7an bi «Eleketa» borna erakutsiak izan dira Donibane Lohizuneko portuko erretegiaren, arrantza- eta itsasoaren «Itsasotik» bestaren karietara.

Horien bidez, Donibane Lohizune - Ziburuko portuko bizipenak eta oroimenak kondatzen dituzten 21 lekukoren testigantzak entzun ahal izan dira.

Partaideak: EKE-k Donibane Lohizuneko herriaren partaidetzarekin eraman ekintza.

**«Eleketa» irrati kronikak**

Mintzoak.eus atarian argitaratu dira ere 2024an Terexa Lekumberri Euskal kultur erakundeko antropologoak Gure Irratian grabatu 10 irrati-kronikak, azken 16 urteotan Lapurdin bildu ahozko lekukotasunak baloratzen dituztenak.

Partaideak: EKE-k eraman egitasmoak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko artxibotegiarekin partaidetzan eta tokian-tokiko egiturekin elkarlanean, proiektuen arabera (Espelletenia kultura ostatua, Ospitalea zentroa, Kanaldude, Bertz Xiloa elkarte, Gure Irratia).

## 2.4 Aktualitate artistiko eta kulturala baloratu

### 27. EKINTZA

#### **SORMEN - Euskal sorkuntza kultural eta artistikoari buruzko sareko aldizkariaren argitaratzea**

Ipar Euskal Herrian euskal kultura dinamizatzen eta arraberritzen laguntzen duten ekimenen nabarmentzeko, SORMEN izeneko artikulu-hari berri bat sortu dugu eke.eus atarian. 2008 eta 2023 urteen artean Iparraldeko kultura eragileei egin dizkiegun elkarriketen segida hartu du SORMEN agerkari numerikoak.

Sorkuntza desmartxa batean engaiatuak diren pertsonak eta taldeak agerian eman nahi ditu, zentzu zabalean, bai transmisioaren, bai prestakuntza edo sorkuntza artistikoaren ikuspegitik.

12 artikulu argitaratuak izan dira 2024an, Camille Chopin, Séverine Dabadie eta Bruno Bereau argazkilarien parte hartzearekin eta Bada.eus gazte komunikabidearen partaidetzarekin.

SORMEN multimedia artikuluak <http://sormen.eke.eus> webgunean kontsultagarri dira, arloka sailkatutik (antzerkia, kantua eta musika, literatura, dantza...). Sare sozialetan ere zabaltzen dira, baita EKE-ren hileko berripaperean ere.

Partaideak: Euskal kultur erakundeak kudeatu egitasmoa, kultur eragileekin elkarlanean eta eduki sortzaile desberdinen parte hartzearekin.

### 28. EKINTZA

#### **Euskal kultur eta arte aktualitatearen sareko agenda baten zabaltzea**

Garapen teknikoak eta ergonomikoak burutu ditugu

[www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariaren agendan, datak gehitzeko prozesuen hobetzeko (kartelen txertatzea, kultura eragileen fitxetarako estekak), ekitaldiak gaika bilatzeko (menu dedikatu baten sortzea) eta bilatzaileek indexatzen ez dituzten datuen artxibatze.

Kultur eragileek eman datuetatik abiatuz eta euskarri desberdinetako prentsa/sare sozialen errepaso baten laguntzaz, EKEk egunero ipar Euskal Herri mailako euskal kulturaren agenda osatzen du (mintzaldiak, kontzertuak, animazioak...). Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren «Kulturklik» (<http://kulturklik.euskadi.eus>) atariarekin dugun partaidetzari esker, hego Euskal Herriko gertakarien hautaketa bat eskaintzen dugu, gure agendako atal berezi batean, «Kulturklik» atariak bere aldetik, ipar Euskal Herriko gertakarien berri eskaintzen duelarik, EKEren agendan oinarrituta.

Agenda orokorra emailaz hedatua da astero, berripaper baten bidez, bai euskaraz bai frantsesez (2200 harpidedun baino gehiago orotara).

Era berean, haurrak eta burasoak (euskarazko irakaskuntza sareetakoak) biltzen ahal dituzten hitzorduak hedatzen ditugu ere «Kultura familian» izeneko newsletter baten bidez, bi astetarik behin.

**Orotara, 2023an agendan sartu ziren gertakarien kopurua:**

1947 (1569 Ipar Euskal Herrian kokatuak).  
Estatistika gehiago <http://agenda24.eke.eus> web-orrian.

Partaideak: EKE-k eraman egitasmoa, Euskal Autonomia Erkidegoko «Kulturklik» atariarekin partaidetzan datuen hedapenarentzat. Ipar Euskal Herriko euskarazko irakaskuntza sareekin elkarlanean (Seaska, Ikas Bi, Biga Bai, Euskal Haziak) «Kultura familian» agendari dagokionez.

## 29. EKINTZA

**Artisten eta kultur eragileen sareko erreperitorioaren optimizazioa**

2024an, gure sareko erreperitorioaren eragile fitxen birmoldatze grafikoak burutu ditugu.

Elkartekideen fitxak eguneratuak izan dira, urtero daramagun datu-bilketaren ondorioz.

Bestalde, datuak babesteko Europako erregelamendu orokorrek bat egin nahian, eta erreperitorioa ahalik eta gaurkotuen atxikitze asmoz, gainerako kultur eragileei zuzendu eguneraketa kanpaina zabala abiatu da 2024ko udazkenean.

Partaideak: EKE-k kudeatu erreperitorioa, kultur eragileekin elkarlanean.

## 30. EKINTZA

**Komunikazioaren garapena sare sozialetan eta hedapen zerrendetan**

Euskal kultur erakundearen egitasmo orokorraz komunikatzeko xedearekin, social-media estrategia ondoko sareetan garatu da 2024an: Facebook, Instagram, X, LinkedIn eta Google Business. Hau dena, argitalpenen publikazioa astero programatuz.

Bestalde, lantalde profesionaleko kide bakoitzaren email perfilean agertzen den izenpeduraren bidez hainbat ekitaldi/ekintza baloratuak izan dira ere.

EKEren aktibitateei buruzko albiste haria hilabeteroko berripaperaren bidez hedatua eta agerian emana izan da ere (3000 harpidedun baino gehiago). Tresna horri esker gainera, partaide ditugun instituzio eta elkarten proiektu deialdien berri, baina ere formakuntza proposamenen eta ekarpen deialdien berri ematen dugu.

Informazio zaintza berezia eramaten dugu horretarako. 2024an zenbait aldaketa grafiko ekarri dizkiogu newsletterari SORMEN saileko artikuluen hedapenaren ahalbidetzeko.

**2024ko zenbait estatistika (bilakaera / 2023)**

- Facebook: 6353 harpidedun (+ %3,08)
- Instagram: 2790 harpidedun (+ %45,84)
- Twitter - euskaraz : 2699 harpidedun (+ %0)
- LinkedIn : 759 harpidedun (+ %34,1)

Partaideak: EKE-k eraman egitasmoa.

# Diru bilana

## 2. ardatza: TRANSMITITU & KOMUNIKATU

|                                                                                   |    |                                                                                                            | Aurrekondua | Bilana  |
|-----------------------------------------------------------------------------------|----|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|---------|
|                                                                                   |    | Koordinazioa eta perspektibak                                                                              | 33397       | 30049   |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 33397       | 30049   |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 0           | 0       |
| 2.1. Euskal kulturaren transmisiorako estrategia bat asmatu                       | 13 | "Euskal kultura bizi" euskal kulturaren sentsibilizazio eta transmisio ibilbideen sortzea                  | 13830       | 2450    |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 13830       | 2450    |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 0           | 0       |
|                                                                                   | 14 | Euskal kultura digitala eta interaktiboa zabaltzeko tresnen diseinua                                       | 12050       | 50      |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 7050        | 50      |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 5000        | 0       |
|                                                                                   | 15 | Euskal kulturaren transmisioari eta euskararekiko loturari buruzko gogoeta instituzionaletan parte hartzea | 2804        | 1033    |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 2804        | 1033    |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 0           | 0       |
| 2.2. Transmisio dispositiboak animatu                                             | 16 | Liburugintzako profesionalei zuzendu egunen antolaketa                                                     | 4746        | 7159    |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 2746        | 5285    |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 2000        | 1874,25 |
|                                                                                   | 17 | Deskubritze tailerren antolaketa presondegi munduan                                                        | 2648        | 2352    |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 1648        | 1592    |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 1000        | 760     |
|                                                                                   | 18 | "Zineskola" dispositiboaren koordinazioa                                                                   | 11981       | 11547   |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 5481        | 5312    |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 6500        | 6235    |
|                                                                                   | 19 | "Collège au cinéma" dispositiboan parte hartzea                                                            | 4978        | 4448    |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 2478        | 1948    |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 2500        | 2500    |
|                                                                                   | 20 | "Idazleak Ikastetxeetan" dispositiboaren egituraketa                                                       | 5966        | 4206    |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 2966        | 1530    |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 3000        | 2676    |
|                                                                                   | 21 | "Musikariak Ikastetxeetan" dispositiboaren experimentazioa                                                 | 10902       | 13852   |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 2902        | 2952    |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 8000        | 10900   |
|                                                                                   | 22 | Booktrailer lehiaketa baten experimentazioa                                                                | 8682        | 6067    |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 3682        | 3589    |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 5000        | 2478    |
|                                                                                   | 23 | "Etnologo gazte" modulu pedagogikoaren experimentazioaren luzatzea                                         | 6077        | 494     |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 6077        | 494     |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 0           | 0       |
| 2.3. Eduki editorializatuak sortu euskal kulturari sentsibilizatzeko eta heitzeko | 24 | Eke.eus ataria, euskal kulturaren aldeko sentsibilizazioaren eta heziketaren baliabide-plataforma          | 19163       | 17523   |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 16163       | 14285   |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 3000        | 3238    |
|                                                                                   | 25 | Mintzoak.eus ataria, euskal ahozko memoriaren altxorren multimedia erakuslelhoa                            | 11756       | 9904    |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 8756        | 9579    |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 3000        | 325     |
|                                                                                   | 26 | "Eleketa" funtsaren balorapenak lurraldeka eta gaika                                                       | 40426       | 37766   |
|                                                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                            | 18726       | 22453   |
|                                                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                                         | 21700       | 15313   |

# Diru bilana

|                                                   |    |                                                                                               |       |       |
|---------------------------------------------------|----|-----------------------------------------------------------------------------------------------|-------|-------|
| 2.4. Aktualitate artistiko eta kulturala baloratu | 27 | SORMEN - Euskal sorkuntza kultural eta artistikoari buruzko sareko aldizkariaren argitaratzea | 29140 | 21949 |
|                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                               | 21140 | 18119 |
|                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                            | 8000  | 3830  |
|                                                   | 28 | Euskal kultur eta arte aktualitatearen sareko agenda baten zabaltzea                          | 29596 | 27455 |
|                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                               | 29596 | 27455 |
|                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                            | 0     | 0     |
|                                                   | 29 | Artisten eta kultur eragileen sareko errepertorioaren optimizazioa                            | 5700  | 7680  |
|                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                               | 5700  | 7680  |
|                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                            | 0     | 0     |
|                                                   | 30 | Komunikazioaren garapena sare sozialetan eta hedapen zerrendetan                              | 15560 | 18701 |
|                                                   |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                               | 15560 | 18701 |
|                                                   |    | Proiektuari doazkion beste gastuak                                                            | 0     | 0     |

|  |                                      |           |           |
|--|--------------------------------------|-----------|-----------|
|  | OROTARA 2. ARDATZA :                 | 269 401 € | 224 685 € |
|  | Giza aberastasunaren balorazioa      | 200 701 € | 174 556 € |
|  | Proiektuari doazkion beste gastuak : | 68 700 €  | 50 129 €  |



# 3. Egituratu eta lagundu

---

## 3.1. Euskal kulturaren ekosistema egituratu

- 31. ekintza - ELKARTUZ desmartxa kolektiboaren animazioaren segitzea
- 32. ekintza - Sail artistikoen egituraketa instituzionalaren aldeko elkarlanaren segitzea
- 33. ekintza - Elkartekideen jarraitzeko programa baten plantan ezartzea
- 34. ekintza - Artisten profesionalizazioa laguntzeko ibilbide baten asmatzea

## 3.2. Elkartekideen proiektuak sostengatu

- 35. ekintza - Urteko egitasmo deialdiaren birmoldaketaren segitzea
- 36. ekintza - SORTU dispositiboaren bidez, sorkuntza amaturra laguntzea
- 37. ekintza - PASA dispositiboaren bidez, herri-transmisio proiektuak laguntzea
- 38. ekintza - HEDA dispositiboaren bidez, lurraldeko ekitaldiak laguntzea
- 39. ekintza - MUGI dispositiboaren bidez, mugikortasuna laguntzea

## 3.3. Artisten sorkuntza eta hedapena bultzatu

- 40. ekintza - Literatura sorkuntza sostengatzea, egonaldi bikoitz baten antolaketaren bitartez
- 41. ekintza - Musika sorkuntza sostengatzea, egonaldi bikoitz baten antolaketaren bitartez
- 42. ekintza - *Ibilki* dispositiboaren birmoldatzea
- 43. ekintza - Proposamen artistikoak zerrendatuko dituen barne datubase bat elikatzea
- 44. ekintza - 2023ko EKE-ELKAR literatura bekaren liburu irabazlearen sustapena
- 45. ekintza - Praktikaren eta sorkuntzaren inguruko hitzordu baten ko-antolaketa
- 46. ekintza - Euskal zinemaren sustapenari laguntza
- 47. ekintza - Hego Euskal Herrirako mugikortasuna sostengatu, partaidetza desberdinei esker

## DIRU BILANA

# 3.1 Euskal kulturaren ekosistema egituratu

## 31. EKINTZA

### ELKARTUZ desmarta kolektiboaren animazioaren segitzea

Proiektuaren bigarren fasearen segitzea: esperientzien partekatzea eta proiektu kolektiboaren eraikitzea.

Horretarako, EKE-k elkarten eta artisten arteko topaketak koordinatu eta bultzatu ditu:

- **Literatura:** 7 topaketa, euskarazko booktrailer lehiaketa baten diseinatzea eraman dutena. Esperimentazioa 2023-2024 ikasturtean, Kanboko Xalbador, Baigorriko Jean Pujo eta Hendaiaiko San Bizente ikastetxeetako 5. mailako lau klaserekin (90 bat ikasle). Beste proiektu kolektibo bat sortzen ari da: euskarazko irakurketa kanpaina baten plantan ezartzea, liburu gomendio zerrenda batekin.

- **Arte bisualak:** topaketa bat, obra baten eta bere egilearen ezagutzeko ibilbide pedagogiko baten diseinua ahalbidetu duena.

- **Kantua:** topaketa bat (mahain inguru bat «Arteen Arteen» festibala kari), euskal kantuen transmisioari buruz gogoeta egiteko

- **Antzerkia:** 2 topaketa antzerki herrikoiko eragileekin, antzerkiaren transmisioari buruzko gogoeta eta transmitzaile berrien formakuntza ahalbidetuko duen «kit» baten diseinuaren abiatzea ahalbidetu duena.

- **Koru kantua:** topaketa bat, gazteendako proposamen erakargarrien falta azpimarratu duena.

- **Dantza eta dantzatzeko musika:** laguntza IDB euskal dantza federazioari bere barne berregituraketan eta 2024-2027 bide orriaren aurkezpenean.

- **Zinema:** topaketa erregularrak Zukugailua-ko ordezkariekin, elkartearen egituraketa laguntzeko.

- **Bertsularitza:** topaketa bat kulturaren transmisioari buruz eta sareburu ezberdinen artean landu beharreko osagarritasunari buruz. Bertsularien profesionalizazio prozesuari buruzko topaketa bat.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, elkarte eragileekin eta artistekin partaidetzan.

## 32. EKINTZA

### Sail artistikoen egituraketa instituzionalaren aldeko elkarlanaren segitzea

2023an hasitako lankidetzak proiektuak ez dira berriz aktibatuak izan 2024an, hau da, zinema eta ikus-entzunezkoen erakundearen arteko batzordea eta euskarazko argitaletxe eta literatur adierazpenei buruzko ikerketa.

## 33. EKINTZA

### Elkartekideen jarraitzeko programa baten plantan ezartzea

«ERASMUS+ mugikortasuna antolatu» jarraitze kolektiboa, Combustible-k animaturik

Proposamenak, egiturek elkarlanean aritzeko, praktika iraunkorrak integratzeko, eta nazioarteko mugikortasunak obratzeko duten gaitasuna indartzea zuen helburu.

3 saio kolektibo, ikusmolde pedagogikoak eta tailer praktikoak uztartuz - 7 elkarte parte hartzaile.

«Euskararen erabilera kultur proiektuetan» gaiaren inguruko bi arrats-tailer, Plazara kolektiboak animaturik. Proposamenak antolatzaileei beren kultur proiektuetan euskararen presentzia eta erabilera indartzeko gogoak, gakoak eta tresnak ematea zuen helburu - 8 elkarte parte hartzaile.

Euskararen erabilpenari buruzko bakarkako sentsibilizazio saioa Bertz xiloa elkartearentzat (Xiberoko pastoralaren antolatzailea), Plazara kolektiboak animaturik.

Boluntario eta partaideei zuzendu proposamen honen helburua, ekitaldi honen antolaketan euskararen erabilpena bultzatzea zen.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, Profession Sport et Loisirs 64 (lurralde honetan tokiko jarraipen dispositiboa [DLA] eramaten duen egitura), eta Plazara-rekin partaidetzan.

**34. EKINTZA****Artisten profesionalizazioa laguntzeko ibilbide baten asmatzea**

Euskal Hirigune Elkargoko kultura zerbitzuarekin gogoeta baten abiatzea, profesionalizatu nahi duten artista amaturren laguntzeko ibilbide baten eraikitzearen inguruan.

Partaidetza dinamika: EKE-k eta Euskal Hirigune Elkargoak elkarrekin eraman egitasmoa.

## 3.2 Elkartekideen proiektuak sostengatu

### 35. EKINTZA

#### Urteko egitasmo deialdiaren birmoldaketaren segitzea

Partaide bakoitzaren esku hartze eremuen eguneratzea eta osagarritasun logiken inguruko lana, partaide ezberdinekilako topaketak antolatuz edo horietan parte hartuz.

Berritasuna sorkuntzaren alorrean: Euskal kultur erakundea eta Euskal Hirigune Elkargoa bateratu dira, 2025eko egitasmo deialdiaren baitan, amaturrek bultzatzen dituzten sormen proiektuak laguntzeko, ELKI izeneko dispositiboaren bitartez.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, lekuko elkargoetako teknikariekin eta zabalago EKE-ko COTEC instituzionalarekin lankidetzan.

### 36. EKINTZA

#### SORTU dispositiboaren bidez, sorkuntza amaturra laguntzea

Laguntza EKE-ko kide diren elkarteei, amatur gisa eraman nahi dituzten sorkuntza proiektuentzat (ikus eranskinean 2024an lagunduak izan diren elkartekideen egitasmoen zerrenda).

Partaidetza berezi bat eramana izan da Xiberoko pastoralaren antolatzailea zen Bertz xiloa elkartearekin. Abantzu bat proposatua izan zaio. Abantzu horren xedea zen gertakariaren aitzineko diru gastuen parte bat estaltzea. Diru hori itzulia izan delarik, 2025eko pastoralara modu berean lagundua izan da.

Partaidetza horrek, halaber, euskara gehiago erabiltzeko laguntza (33. ekintzaren bidez), eta ondare immaterialaren aldeko sensibilizazioa (Xiberoako pastoralaren ahozko oroimenei buruzko multimedia

dorre bat instalatuz) barne hartzen zituen.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, Euskal Hirigune Elkargoaren «Pindar» dispositiboarekin osagarritasunean, eta elkartekideekin partaidetzan.

### 37. EKINTZA

#### PASA dispositiboaren bidez, herri-transmisio proiektuak laguntzea

Laguntza EKE-ko kide diren elkarten transmisio eta sensibilizazio proiektuei (ikus eranskinean 2024an lagundutako elkartekideen egitasmoen zerrenda).

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, elkartekideekin partaidetzan.

### 38. EKINTZA

#### HEDA dispositiboaren bidez, lurraldeko ekitaldiak laguntzea

Laguntza EKE-ko kide diren elkarte antolatzaileen proiektuei - non ere euskal kultura agerian emana den (ikus eranskinean 2024an lagunduak izan diren elkartekideen egitasmoen zerrenda).

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, Euskal Hirigune Elkargoaren «Berpiztu» dispositiboarekin osagarritasunean, eta elkartekideekin partaidetzan.

## 39. EKINTZA

**MUGI dispositiboaren bidez, mugikortasuna laguntzea**

Laguntza EKE-ko kide diren elkarten proiektuei, hego Euskal Herrira joateko (ikus eranskinean 2024an lagunduak izan diren elkartekideen egitasmoen zerrenda).

Kide diren elkartek beren gaitasun garatze proiektuetan laguntzea, European egonaldiak eginez, EKE parte den eskualdeko partzuergoan integratuz.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, Euskal Hirigune Elkargoaren laguntza dispositiboekin eta Etxepare euskal institutuaren mugikortasunerako laguntzekin osagarritasunean, eta elkartekideekin partaidetzan.

Europako mugikortasun proiektuak: EKE-k eramana, Combustible eta Atabalekin bateraosatzen duen partzuergoak lortu ERASMUS+ akreditazioaren kariatara.

## 3.3 Artisten sorkuntza eta hedapena bultzatu

### 40. EKINTZA

#### Literatura sorkuntza sostengatzea, egonaldi bikoitz baten antolaketaren bitartez

Euskarazko idazketa egonaldiaren 14. edizioaren ko-antolaketa: Hendaia-ko Abbadia eremuko Nekatoenea etxean hilabete batez (2024ko azaroan), eta Pasai Donibaneko Hugoenea egoitzan bigarren hilabete batez (irailaren eta abenduaren artean).

Irabazlea: Pantxix Bidart (Hazparne, 1971), musikari, kantari eta konpositore bezala ezagutua bereziki.

Egonaldien denboran eta ondotik, bi topaketen antolaketa Pantxixen lana deskubritzeko:

- Hendaia-ko La Grande Illusion liburudendan, 2024ko azaroaren 22an
- Pasai-Donibaneko Ubera liburutegian, 2025eko urtarrilaren 9an

Partaidetza dinamika: EKE ko-antolatzaile, CPIE Euskal Itsasbazterra eta Euskal Idazleen Elkartearekin partaidetzan.

### 41. EKINTZA

#### Musika sorkuntza sostengatzea, egonaldi bikoitz baten antolaketaren bitartez

«Iparhots» musika sorkuntza egonaldiaren 2. edizioaren ko-antolaketa, artisten profesionalizazioa laguntzeko.

Irabazlea: Baionako RTZ Kolektiboa.

Egonaldien egunak eta tokiak:

- Azpeitiako Dinamo sormen gunean, urriaren 26 eta 27an
- Biarritzeko Atabalen, urriaren 28 eta 29an
- Egonaldi ateratze kontzertua: 2025eko otsailaren 14an

### 42. EKINTZA

#### «Ibilki» dispositiboaren birmoldatzea

Laguntza lurraldeko herri eta liburutegi/mediatekei programazio mailan (aholkularitza, diru partaidetza, komunikazioa).

Zenbaki batzuk:

35 konpainia, talde, idazle edo mintzalari hedatuak (iparraldekoak zein hegoaldekoak)

37 emanaldi/topaketa eta 6 zine gaualdi kanpoan

4 500 ikusle inguru

Sorkuntza motak: antzerkia, haur antzerkia, dantza, kantua, musika, zinema, literatura

Programazioa:

- **Magma mia**, Beatriz Egizabal - Otsailaren 11n, Hendaian
- **Andereño**, Anita Maravillas konpainia - Otsailaren 23an, Ziburun
- **Mamuka**, Elirale konpainia / Pantxika Telleria - Martxoaren 10ean, Hendaian
- **Ixabel Agirresarobe** - Martxoaren 14an, Senperen
- **Mundu guztietan onena**, Ane Pikaza & Gheada - Martxoaren 19an, Donibane Lohizunen
- **Erromako Zubia**, Itzuli konpainia - Apirilaren 17an, Azkainen
- **Laupaborts aire ttipi**, Haira - Apirilaren 27an, Hendaian
- **Fuga!**, Elirale konpainia / Pantxika Telleria - Maiatzaren 3an, Donibane Lohizunen
- **40 urte eta aldapa beheran niek!**, Txiki - Maiatzaren 14an, Baionan
- **Euskera Nafarroan**, Fernando Pérez de Laborda - Maiatzaren 17an, Baionan
- **Euskaldunen jatorria, historia eta irria**, Txiki - Maiatzaren 25ean, Hendaian
- **Errimak**, Haatik konpainia - Maiatzaren 26an, Hendaian
- **Loratzen**, Bat Egin & Alabena konpainiak - Ekainaren 2an, Urruñan

- **O!**, Elirale konpainia / Pantxika Telleria - Ekainaren 2an, Urruñan
- **Gelara, Pontx pailazoa** - Ekainaren 2an, Urruñan
- **Flipfluf**, Alabena konpainia - Ekainaren 2an, Urruñan
- **Izakiak**, Alabena konpainia - Ekainaren 7an, Maulen
- **Akelarre filma**, Pablo Agüero - Ekainaren 7an, Saran
- **Haize Leizean**, Elise Dilet eta Antton Harignordoquy - Ekainaren 25ean, Kanbon
- **Mairu taldea** - Uztailaren 5ean, Hendaian
- **Akelarre filma**, Pablo Agüero - Uztailaren 16an, Maulen
- **Aupa Etxebeste filma**, Asier Altuna eta Telmo Esnal - Uztailaren 17an, Ortaizzen
- **Film labor gaudia** - Oskar Alegria, Frank Harriet, Iban del Campo, Itziar Leemans - Uztailaren 19an, Arrosan
- **Mugak, Kalakan + Alaia dantza taldea** - Uztailaren 22an, Donapaleun
- **Akelarre filma**, Pablo Agüero - Agorriaren 10ean, Ainhoan
- **Akelarre filma**, Pablo Agüero - Agorriaren 25ean, Ziburun
- **Gezur gehiegi**, Txoborro magoa - Irailaren 18an, Biarritzen
- **Haize Leizean**, Elise Dilet + Maddi Zubeldia - Urriaren 13an, Saran
- **Ihesi**, Iduzkilore taldea - Urriaren 18an, Kanbon
- **Badoa**, Neskena taldea - Urriaren 18an, Saran
- **Etxetaburu** - Urriaren 18an, Biarritzen
- **Bea Sallaberri** - Urriaren 19an, Biarritzen
- **Miñan**, Artedrama - Azaroaren 3an, Hendaian
- **Mamuka**, Elirale konpainia / Pantxika Telleria - Azaroaren 16an, Ziburun
- **Ihesi**, Iduzkilore taldea - Azaroaren 22an, Urruñan
- **Euskaldunen jatorria, historia eta irria**, Txiki - Azaroaren 22an, Maulen
- **Loratzen**, Bat Egin & Alabena konpainiak - Azaroaren 22an, Donapaleun
- **Ttinka**, Philippe Albor eta Arantxa Hirigoyen - Azaroaren 27an, Urruñan
- **Mr Bo**, Marie de Jongh konpainia - Abenduaren 1ean, Hendaian
- **Gelara, Pontx pailazoa** - Abenduaren 2an, Donapaleun
- **Maddi Ane Txoperena** - Abenduaren 3an, Senperen
- **Irulegi, Bidaia bat Baskoein lurraldean zehar**, Mattin
- Aiestaran - Abenduaren 6an, Kanbon

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman proiektua, hedapena laguntzen duten Euskal Hirigune Elkargoaren laguntza dispositiboekin osagarritasunean, eta nahi duten herri nahiz mediatekekin partaidetzan.

## 43. EKINTZA

### Proposamen artistikoak zerrendatuko dituen barne datubase bat elikatzea

Alor guzietako proposamen artistikoak, amatur zein

profesionalak biltzen dituen barne datubasearen aberastea.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman proiektua.

## 44. EKINTZA

### 2023ko EKE-ELKAR literatura bekaren liburu irabazlearen sustapena

2025era gibelatua. 2023ko edizioa irabazi duen Idoia Rodriguez Mondragon-en liburua berandu publikatu denez (abenduan), ez da literatur proposamen hori aitzinean eman ahal izan.

Partaidetza dinamika: EKE-k eta Elkargak argitaletxeak eraman proiektua.

## 45. EKINTZA

### Praktikaren eta sorkuntzaren inguruko hitzordu baten ko-antolaketa

Kontserbatorioko ikasleei, dantza taldeei eta musika eskolei zuzendua den euskal kulturaren sorkuntzari, praktikari eta transmisioari buruzko «Arteen Arteen» ekitaldiaren ko-antolaketa (2024ko azaroaren 27tik 30era): topaketak artistekin, musika, dantza eta antzerki tailerrak, amaturrei toki berezia utzi dieten ikusgarrien programazioa...

Partaidetza dinamika: EKE ko-antolatzaile, Maurice Ravel Kontserbatorioarekin, Iparraldeko Dantzarien Biltzarrekin eta Malandain Ballet Biarritz-ekin partaidetzan.

## 46. EKINTZA

### Euskal zinemaren sustapenari laguntza

Estreinaldiak programatzeko laguntza, « Cinéma & Cultures » eta « Cinévasion » elkarteek kudeatzen dituzten lurraldeko 9 zinema geletan, zuzendariaren nahiz aktoreen presentziarekin [Atalante (Baiona) / Le Sélect (Donibane Lohizune) / Haritz Barne (Hazparne) / L'Aiglon (Kanbo) / Maule Baitha (Maule) / Saint-Louis (Donapaleu) / Le Vauban (Donibane Garazi) / Les Variétés (Hendaia) / Getari Enea (Getaria)]: Bizkarsoro, 20 000 erle espezie, Negu hurbilak, Samsara, Zinzindurrunkarratz, Artzain soil, Irati, Mirande, Indarkeriaren oihartzunak.



Partaidetza dinamika: « Cinévasion » eta « Cinéma et Cultures » egiturek eraman proiektuak. EKE, proposamen iturri eta diru partaide

## 47. EKINTZA

## Hego Euskal Herrirako mugikortasuna sostengatu, partaidetza desberdinei esker

### Loraldia festibala (Bilbo)

Bilboko festibalean ipar Euskal Herriko artistak programatzeko laguntza:

- **Erresiñula kantari**, Jean Mixel Bedaxagar - Martxoaren 16an
- **Bizkarsoro**, Josu Martínez - Martxoaren 17an
- **Mitologia txikiak**, Bilaka Kolektiboa - Martxoaren 19an

Partaidetza dinamika: EKE proposamen iturri eta Loraldia kultur elkartearen diru partaidea.

### Iparra galdu gabe festibala (Getxo)

Festibalean ipar Euskal Herriko artistak programatzeko laguntza:

- **Hiru emazte kantari gogoan** mintzaldi-kontzertua. Azaroaren 8an
- **Papogorri** ipuin musikatua - Azaroaren 9an
- **Noraezean** erakusketa - Azaroaren 9tik 24ra
- **Bizkarsoro** filma - Azaroaren 12 eta 13an
- **Iaquin Vahu** kontzertua - Azaroaren 15ean
- **Bihotza gazte** bertso saioa - Azaroaren 15ean
- **Errobi mende erdi** solasaldia - Azaroaren 27an
- **Eneko Bidegain**-en Bichta éder liburuari buruzko mintzaldia - Azaroaren 28an
- **Errobi taldearen 50. urteurrena** kontzertua - Azaroaren 30ean

Partaidetza dinamika: EKE Getxoko Herriko Etxearen -dakoproposamen iturri.

### LABO XL festibala (Donostia)

Dantza festibalean ipar Euskal Herriko dantzariak laguntza Tabakalera kutur gunean programatzeko

- **Neskena** taldearen Badoa emanaldia - Azaroaren 16an
- **Elirale konpainia** / Pantxika Telleriaren O! ikusgarriaren bi emanaldi - Azaroaren 17an

Partaidetza dinamika: EKE proposamen iturri eta NODE kultur elkartearen diru partaidea.

### Iparraldea bertan (Donostia)

Sostengua ipar Euskal Herriko artisten sorkuntzak Koldo Mitxelena Kulturunearen Santa Teresa konbentuan aurkezteko:

- **Habia** hirukotearen kontzertua - Otsailaren 28an
- **Elise Diletek** eta **Antton Hariñordokik** idatzi eta **Ainize Butronek** ilustratutako Haize leizean eleberriaren aurkezpina - Martxoaren 6an
- **Arriola-Ezcurra** bikotearen kontzertua - Martxoaren 13an
- **Ekhi Lambert** Inbasioak disko berriaren aurkezpina Martxoaren 20an

Partaidetza dinamika: EKE Gipuzkoako Diputazioaren proposamen iturri.

### Durangoko Azoka (Durango)

Laguntza ekonomiko eta teknikoa 2024ko abenduaren 5etik 8ra iragan den Durangoko azokaren 59. edizioaren parte hartzeko: erakusmahaien alokailurako laguntza, garraio eta aterbe gastuen zati baten ordainketa, ekitaldien antolaketa azoka denboran.

16 egituren parte hartzea:

- Argitaletxeak: Gatuzain, Herrima, Ikas, Maiatz, Zortziko
- Diskoetxe edo musika elkartek: Altzükütarrak, Belarri, Ekhi Lambert, Kuartz, Maider, Maskak, Mattin
- Elkarrea: Seaska

Ipar Euskal Herriko urteko literatur eta musika ekoizpenak biltzen dituen katalogo baten ekoizpina (euskarazko 55 berritasun plazaratuak 2024an).

Ipar Euskal Herriko prentsaurrekoaren antolaketa.

«DA!Pro» ekitaldiari buruzko informazioaren zabaltzea.

Partaidetza dinamika: EKE koordinatzaile, Azoka antolatzen duen Gerediaga elkartearen partaidetzarekin.

# Diru bilana

## 3. ardatza: EGITURATU & LAGUNDU

|                                               |    |                                                                                                           | Aurrekondua   | Bilana        |
|-----------------------------------------------|----|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|---------------|
|                                               |    | <b>Koordinazioa eta perspektibak</b>                                                                      | <b>35394</b>  | <b>33776</b>  |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 35394         | 33776         |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 0             | 0             |
|                                               |    |                                                                                                           |               |               |
| 3.1. Euskal kulturaren ekosistema egituratu   | 31 | <b>ELKARTUZ desmarta kolektiboaren animazioaren segitzea</b>                                              | <b>14348</b>  | <b>14296</b>  |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 11848         | 12296         |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 2500          | 2000          |
|                                               | 32 | <b>Sail artistikoen egituraketa instituzionalaren aldeko elkarlanaren segitzea</b>                        | <b>4196</b>   | <b>1383</b>   |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 4196          | 1383          |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 0             | 0             |
|                                               | 33 | <b>Elkartekideen jarraitzeko programa baten plantan ezartzea</b>                                          | <b>10706</b>  | <b>11729</b>  |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 3706          | 4359          |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 7000          | 7370          |
|                                               | 34 | <b>Artisten profesionalizazioa laguntzeko ibilbide baten asmatzea</b>                                     | <b>4528</b>   | <b>1200</b>   |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 4028          | 1200          |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 500           | 0             |
| 3.2 Elkartekideen proiektuak sostengatu       | 35 | <b>Urteko egitasmo deialdiaren birmoldaketaren segitzea</b>                                               | <b>9937</b>   | <b>12350</b>  |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 9937          | 12350         |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 0             | 0             |
|                                               | 36 | <b>SORTU dispositiboaren bidez, sorkuntza amaturra laguntzea</b>                                          | <b>54549</b>  | <b>64045</b>  |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 7749          | 7245          |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 46800         | 56800         |
|                                               | 37 | <b>PASA dispositiboaren bidez, herri-transmisio proiektuak laguntzea</b>                                  | <b>53316</b>  | <b>53973</b>  |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 6816          | 5939          |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 46500         | 48034         |
|                                               | 38 | <b>HEDA dispositiboaren bidez, lurraldeko ekitaldiak laguntzea</b>                                        | <b>126454</b> | <b>138484</b> |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 11254         | 12284         |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 115200        | 126200        |
|                                               | 39 | <b>MUGI dispositiboaren bidez, hego Euskal Herrira, Frantziara eta Europarako mugikortasuna laguntzea</b> | <b>11548</b>  | <b>14554</b>  |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 4748          | 5754          |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 6800          | 8800          |
| 3.3. Artisten sorkuntza eta hedapena bultzatu | 40 | <b>Literatura sorkuntza sostengatzea, egonaldi bikoitz baten antolaketaren bitartez</b>                   | <b>5873</b>   | <b>5931</b>   |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 1373          | 1731          |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 4500          | 4200          |
|                                               | 41 | <b>Musika sorkuntza sostengatzea, egonaldi bikoitz baten antolaketaren bitartez</b>                       | <b>4632</b>   | <b>4513</b>   |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 1632          | 3013          |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 3000          | 1500          |
|                                               | 42 | <b>Ibilki dispositiboaren birmoldatzea</b>                                                                | <b>56896</b>  | <b>48386</b>  |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 30170         | 28087         |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 26726         | 20299         |
|                                               | 43 | <b>Proposamen artistikoak zerrendatuko dituen barne datubase bat elikatu</b>                              | <b>8103</b>   | <b>5600</b>   |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 8103          | 5600          |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 0             | 0             |
|                                               | 44 | <b>2023ko "EKE-ELKAR literatura beka"-ren liburu irabazlearen sustapena</b>                               | <b>3373</b>   | <b>2583</b>   |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 1373          | 583           |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 2000          | 2000          |
|                                               | 45 | <b>Praktikaren eta sorkuntzaren inguruko hitzordu baten ko-antolaketa</b>                                 | <b>15109</b>  | <b>8460</b>   |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 11109         | 6860          |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 4000          | 1600          |
|                                               | 46 | <b>Euskal zinemaren sustapenari laguntza</b>                                                              | <b>8632</b>   | <b>9189</b>   |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 1632          | 2189          |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 7000          | 7000          |
|                                               | 47 | <b>Hego Euskal Herrirako mugikortasuna sostengatu partaidetza desberdinei esker</b>                       | <b>27158</b>  | <b>20706</b>  |
|                                               |    | Giza aberastasunaren balorazioa                                                                           | 8158          | 8771          |
|                                               |    | Proiektuari doazkien beste gastuak                                                                        | 19000         | 11935         |

|                                     |  |                  |                  |
|-------------------------------------|--|------------------|------------------|
| <b>OROTARA 3. ARDATZA :</b>         |  | <b>454 747 €</b> | <b>451 158 €</b> |
| Giza aberastasunaren balorazioa     |  | 163 222 €        | 153 420 €        |
| Proiektuei doazkien beste gastuak : |  | 291 526 €        | 297 738 €        |

# Elkarteen egitasmoak 2024



# Pasa

